

San Frantziskoko (Bilbo) liburutegiak 60 herrialdetako 180 egunkari kontsultatzeko gaiden doako zerbitzua eskainiko du

BILBO, 18 (EUROPA PRESS)

San Frantzisko auzo bilbotarreko liburutegiak erabiltzaileen esku jarri du eguneroko prentsa kontsultatzeko zerbitzu berri bat, "Munduko Egunkariak" deritzona. Zerbitzu berriaren bitartez, 60 herrialdetako 180 egunkari kontsultatzeko aukera izango da liburutegi bilbotarrean.

Programa hau Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren eta beste erakunde batzuren arteko lankidetzaz bultzatutako "Kulturaniztasuna eta liburutegiak" delako proiektuaren barruan gauzatu da Kulturaren Euskal Planari jarraiki, etorkinen gizarteratzea sustatzeko asmoz. Nazioarteko prentsa "nahierara" eta harpidetuta egon beharrik gabe kontsultatzea erraztuko duen doako zerbitzu honen bidez, liburutegiak malgutasun osoa izango du programari atxikita dauden 60 herrialdetako 180 egunkari inprimatu ahal izateko, egunean eguneko beharrianen arabera.

Printzipioz, zerbitzuaren arduradunen arabera, produktu hau hotelei, itsas-bidaiei, gertaerei eta abarrei zuzenduta gauzatu da, baina "oso interesgarria" suerta daiteke era askotako kultur erakundeentzat, eta bereziki liburutegientzat, hauetan egunkari-eskaera handiagoa sumatzen baita beste herrialde batzuetatik etorritako erabiltzaileei dagokienez.

"Ondorioz, zerbitzu hau ezin hobeia izan daiteke jatorrizko herrialdearekiko hartu-emanak mantendu nahi dituzten etorkinentzat, bai eta kanpoko hizkuntza eta kulturak ikasi nahi dituztenentzat ere", azaldu dute.

Interneten erabiltzeko moduko software mota bati esker, programa honek aurretiaz aukeratutako egunkaria deskargatu eta inprimatzeko aukera eskaintzen du. San Frantziskoko liburutegiak inprimatutako ale batzuk jarriko ditu erabiltzaileen esku, eta beste egunkari batzuk kontsultatu eta inprimatzeko modua ere erraztuko du. Deskarga eta inprimaketa liburutegiko langileek egingo dute, eskaria egiten den unean bertan eta aldian aldiko erabiltzaile kopuruari erreparatuta.